

# ZER

**BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ\***

212n. zenbakia  
azilla/zemendia 1996



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA  
KULTURA SAILA  
LAGUNTZAILLE



## ILLOBIA

- URRAKA BIZKAI'KO JAUNAREN ALABEA
- KAÑAS'KO LEKAIME-ETXEAN (ERRIOXA)
- IRUDIETAKO AURPEGIRIK EDERRENA
- EUSKERAZAINTZA AN IZAN ZAN

(1996-09-21)

EUSKALERRIAN EUSKERAZ



1996-97 IKASTU RTEA

OGEITABEDERATZIGARRENA  
BIZKAIERAZ

IRU MAILLA ETA ALKARRIZKETA

**Egunak:** ASTELEN, EGUASTEN ETA BARIKUETAN EDO ASTEARTE ETA EGUENETAN

**Orduak:** GOIZ, ARRATSALDE ETA GABETAN

**Ordaña:** 16.000 PEZETA

**Izena emoteko-tokia:** EUSKERAZALEAK  
COLON DE LARREATEGI, 14-2 - URRUTIZKIÑA 423 53 22  
BILBAO

29º CURSO DE EUSKERA BIZKAINO

CONVERSACIÓN                      3 NIVELES Y

**Días:** LUNES, MIÉRCOLES Y VIERNES, O MARTES Y JUEVES

**Horas:** MAÑANA, TARDE Y NOCHE

**Curso completo:** 16.000 PESETAS

**Inscripciones:** EUSKERAZALEAK  
COLON DE LARREATEGI, 14-2 - TELEFONO 423 53 22  
BILBAO

LAGUNTZAILEA

COLABORA

~~- Bilbao Bizkaia Kutxa

# JAUN ANDREOK! AITA SANTI'RI OMENA TA GORATZARREA!

—*Ida le* ugaria ta jatorra,  
Aldizkarietan, sortzen naiz laguntzen, zorrotza ta argia.  
Liburuetan, idazten naiz azaltzen, sakona ta zeatza.  
AITA SANTI'ri OMENA TA GORATZARREA

— *Izlari* oparoa eleiza, baseleiza naiz parrokiatan,  
izlari ugaria ta zabala jakintza-gaietan,  
Izlari mindua ta beroa aberri-arloetan.  
AITA SANTI'ri OMENA TA GORATZARREA

—*Elertia'ren* aztertzaile gorengoa,  
euskal idazleen bultzagille ta zuzentzaile,  
bertsolarien eta olerkarien zabalkunde.  
AITA SANTI'ri OMENA TA GORATZARREA

*Lirika* edo barru miñezko euskal olerkaririk onenetarikoa,  
Atzerriko lirika-zaleen begiratzaille argia,  
laterazko lirika-olerkaririk onenen ekarle.  
AITA SANTI'ri OMENA TA GORATZARREA

*Htzultzaile trebe ta iraunkorra,*  
Birjil eta Orati'ren euskeratzaillea,  
Teresa Deunaren eta Kurutzeko Jon Deunaren ulertzaille ta  
euskerazatzaille bizia.  
AITA SANTI'ri OMENA TA GORATZARREA

—*Euskerearen irakasle* maitagarria,  
Ikastolan, bere saillean, fede ezitzaile biguna,  
etxean eta kanpoan maisu goragarria.  
AITA SANTI'ri OMENA TA GORATZARREA

— *Euskalerrriaren eta euskaldunen indartzaille,*  
Gudan eta bakean,  
espetxean eta etxean,  
erbesteko urte latzetan.  
AITA SANTI'ri OMENA TA GORATZARREA

— *apala ta Barri onaren lekuko ziurra*  
Lekaide ondo alkartua ta arau betetzaillea  
kristiñauen argi-egille ta Eleizearen zuzi iziotua  
AITA SANTI'ri OMENA TA GORATZARREA

—*Adiskideen adiskide,*  
adiskide ez diranen itzaltasun aundiko aztertzaile,  
jakintza-arloko langilleen lagun biotzeko,  
AITA SANTI'ri OMENA TA GORATZARREA

— *Bizkai'ko euskerearen aldelari*  
Euskerazaintza Erri Akademia'ko lankide,  
erri zearen suspertzaille gogotsu,  
AITA SANTI'ri OMENA TA GORATZARREA

—Bai, goratzarrea ta omena  
gaur erritarren artean  
ipinten dogun irudiaren aurrean  
AITA SANTI: Gure ondoan zagoz,  
Gure biotzean zaukaguz,  
beti maitatuko zaitugu.

## AITA SANTI ONAINDIA'RI IRUDIA TA OMENALDIA DEI A

Urril onen 19'an, 11<sup>1/2</sup> `etan  
Amorebieta'n, Karmeldarren lekaidetxearen inguruan  
Onaindia'tar Santi Aitari  
Irudia ipiñi eta omenaldia egingo jako:  
Abestiak, bertsoak, txistua ta dantzak lagun dirala.  
Amaitzeko, erri-giroko bazkaria.  
\* \* \*

Bizkai'ko Aldundia, Amorebieta-Etxano'ko Udala ta Karmeldarrak dira laguntzaile.  
Euskerazaleak eta Euskerazaintza (Euskeraren erri-akademia) dira eratzaille  
Mikel Angel Lertxundi, Irudigillea

ZATOZE!!!

---

## NEREJAUN SETIEN DONOSTI'KO GOTZAIAREN ERANTZUNA

---

Badire aste batzuk, "Naparroa'ko Egunkari" onen bidez, On Jose Maria Setien'i idatzi niola. Ez bait zitzaiten arek "el batua"z esandakoa batere atsegin gertatu.

Badut ori egiteko oitura: Gotzai batek, "gizarte-mezu-bide" edo "medios de comunicación social" oietakoren bat erabiliz zuzena iruditzen ez zaitan zerbait esaten duenean, nik ere, izparringi baten bidez erantzun egiten diot, nere atsekabea adieraziz. Ez denek, baña bai beintzet geienek, erantzuten didate. Denek, ordea, alkarrizketatik iges egiñez, "esandakoa esan zutenean borondate onez" ibilli zirela esanez. Nik, ordea, ¡ñori borondate onik ez diot ukatzen! Alperrikako erantzunak, beraz; alare, gogo onez eskertzekoak, beraz; alare, gogo onez eskertzekoak.

Au izen zen adiskide aundia Dutan Joxemari Setien'ni idatzi nion gutunaren zergaitia:

Irratiz, galde bati erantzunez "el batua" onarturik zegoan izkera zeta esan zuen. Oker zebillela ikusi zean, izparringi bateko eskela edo eriotz-oarrak aztertuz enquesta bat egin ondorean, auxe da esaten niona:

– Joxemari: 62 egun igaro zaizkigu esan zenuena esan zenuenez gero.

– 62 eguneko epe ortan, egunero agertu da euskerazko eriotz-oar bat baiño geiago.

– Guztira, 300 izen dire 62 egun oietan agertu diren eriotz-oarrak. Eta 300 oar oietatik.

– 18, (amazortzi) izen dire ildakoen sendikoek "el batuaz" argitaratutakoak, (geienak, gañera, euskeraz itzegiten ez den errietakoak).

– 208, (berreun da zortzi), berriz, ildakoen ai-deek erriko euskeraz argitaratutakoak.

Gero, Erakunde edo Instituzioek ere argitaratu, zituztenak aztertuz, ondoren au irtetzen zitzaigula azaltzen nion:

– El Batuaren alde 18 (amazortzi) puntu.

– Euskeraren alde, 243 (berreun da amairu!!).

Ona orain Donosti'ko Gotzaiak erantzudakoa, euskeraz: "Nere adiskide Bixente: Beti jasotzen

ditut gogo onez zure iritziak, naiz batzuetan nereak zuzendu naiean etorri. Ori, nereak ere zuk kontuan artzen dituzulako siñale bait da.

Eskerrikasko, adiskide. Zaude ziur, oraingoan ere zintzo jaso dutala zuk esaten didazuna, arazo au alde guztietatik ikusteko lagun bait datorkit. Bada- kit gañera, ezerk ez duela gu bion arteko adiskidetasunik urratuko. Besarkada aundi bat.

Jose Mari ob".

Eskertzekoa da, naiz Joxemari'k jokaeraz aldaturiko ez duela ni ziur egon.

Donosti'ko gotzaitegian gertatua da: Liturgiaz arduratzen diren apezek "Itun Bernia" argitaratu zuten euskeraz. Itun Berri ura euskeratu zutenek, On Manuel Lekuona eta Aita Lino Akesolo izen ziren: ura gipuzkoarra; au bizkaitarra. Eta onek esana dut:

"Begira, Bixente: Ni, gure itzulpen a, dana atxez josirik ikusi nebanean, joan nintzan nere asarrea agertzer. Bai al dakizu zer erantzun eustan, irripar ustelez, liturgilari taldetxo aren apez buruzagi txotxolo arek? "Bai, Lino: ixillean, tranpa txiki bat egin dogu". Sinistu eidazu Bixente: Nik ez dot beñere apaiz bati masaileko bat emoteko orduan aiñako gogorik sentittu".

LATIEGI'TAR BIXENTE

\* \* \* \*

## EUSKERAZAINTZA DONEMILIANE'N

Aspaldion zabal dabil Ikasketarako osterak egitea. Ikasturtea amaitzen danean edo ikasbide osoaren erdira eltzen diranean edo ikasketen azken-agiria lortzen dabenean, gure ikasleak mailla guztietan egiten dabez olako osterak. Eta ondo dago, baiña izena daukena bera izan bear leuke izanak, eta sarritan ez da ori izaten, ikasi barik jolasaldi batzuk egin izaten da azkenean lortzen dabena. Eta jolas-aldi orreik beti ez dira izaten izan bear daben lakoak.

Latzaga euskerazain argiak aurkeztu eban ibillaldi au egiteko asmoa eta bat-batean onartu eben beste euskerazain guztiak, ibillaldia zalako be bai, baiña batez be elburuak ziranak ziralako.

Zeintzuk ziran ba, txango onen elburuak?

—Errioxa'tarren eta euskaldunen arteko artu-emonak asi eta ugaritu.


—Euskerazko lenengo esaldiak aztertu eta agertu ziran lekua ikertu.

—Euskerazaintza'ren barria zabaldu inguruetara.

Euskalerriko Eleizan Donemiliane'ko lekaide-etxeak izan dauan garrantzia gogoratu eta kontuan artu.

Irailaren 21n. Egunean egin gendun txango ori. Donosti'tik urten zan giputzak bete eben tarranta, Gasteiz'en artu ebezan Umandi adiskidea ta Iankidea izan zanaren arrebea eta beste batzuk. Bizkaitarrak curen berebilletan joan ziran eta guztiok alkartu giñan Beko Donemiliane'ren lekaide-etxean.

Etxe onetan dan eleizatxu baten ospatu gendun Eukaristia, Jaunaren aurrean pozez eta euskal-giroan alkartuta. Gero lekaidetxe aretan diran ikusgarriak ikusi genduzan eta ondoren, ekintza-aretoan etxe aretako nagusiaren agurra entzun ondoren, Euskerazaintza'ren lendakariak egin eban itzaldi bat eta gauza gogoangarri batzuk gogoratu euskuzan: Euskaldunen eta Errioxa'tarren jatorria, sinismen-arloko artu-emonak eta, tamalez banatzen gaituen zertzeladak: Jabetzadun Alkarte bitan banatuak izatea, izkuntza ezbaridiñak (euskerea eta gaztelerea) izatea eta errigintza edo politikaren edestia: Aldi baten karlatarren



ARO' KO LOPEZ'tar URRAKA ANDEREA'reir ILLOBIA

bideak batu ginduzan baiña gero, 36'ko guda-ostean batez be, abertzaletasunaren eta karlatarren artean izan zan burrukea. Karlatarrak euskalzaleak ziran, lege-zarraren bidetik, baiña abertzaleak, Arana'tar Sabin'en aldetik, jokabide ori alboratu eta bide barri jatorra artu eben, aberria aintzat artzeko bidea, eta bide ori karlatar askok ez ebe onartu.

Goiko Donemiliane'ra igon gendun gero, eta an diran gauza ikusgarriak ikusi eta antxe idatzi zirala euskeraz lenengo esaldiak gogoratu ondoren, bertan illobiratuta dagozan Naparroa'ko Erregeen alde otoitz egin ondoren, inguruko jatetxe batera joan giñan, pozez senide-arteko bazkaria egiteko. Gogoz entzun geuntsen iru bertsolariri: Paulin Solozabal, Murua eta Asier Legarreta.

Bazkal-ostean Kañas'eko Lekaide-etxera joan giñan,

Lekaide-etxe onek artu-emon bereiziak izan dauz edestian bizkaitarrakaz. Antxe bagiratu geuntsan Bizkai'ko Jaunaren alabea zanaren irudiak dauak aurpegi bardinba-koari, argazkiak egin be ugari. Eta etxe aretako nagusi dan Lekaine euskalduna agurtu ondoren, etorri giñan bideetatik barriro geure etxeetara biurtu giñan.

OLAZAR'TAR MARTIN'EK

---

## KUKULLA KOGOLLAKO SAN MILLAN

---

I

Antxiñateko KUKULLA mendi  
gaur, San Millan de Kogolla  
gizonkeriak aldatu eban  
euska lurra erderara;  
inguru onek daukan ospea  
gizon batek emon eutsan.  
Berari esker, gaur, emen gagoz  
ospatzen anaitasuna

II

Seigarren mende aldi artako  
San Millan gizon santua  
euskalduna zan euskeraz ondo  
itz egiten ekiana;  
ezpairik bage erri zalea  
santuei dagokiena  
Jainkoarentzat eukan dan dana  
baita be erri laztana.

111

Erreka ta ibaiz inguru onek  
Euzkadi bera dirudi  
antxiñateko euzko sustraiak  
galdu bagarik maiteki;  
len izan zana ixilik dauka  
ondo gordota zintzoki  
bere izatea ezin ukatu  
sortzetiko bizitzari.

IV

Ezaugarriak ederrak daukaz  
zer izan zan lenagoan  
euzko urratzak agiri ditu  
girorik ederrenean:  
urrezko bitxi zoriontsu lez  
egazkor doaz aidean  
kristautasuna t'eusko izkuntza  
San Millanen biotzean

V

San Millan onek alde danetik  
euzko usaña dario  
sendi ta lagun alkar izketan  
alta baten irudiko;  
mendiak eder euzko tankeraz  
zar, zabal, luze ta sendo  
lurrean gogor sustraiturikan  
gora adi zeruraino

VI

Buruz ta izkuntzaz ondo ebiltzan  
euskeraren alorrean  
auren arima euskalduna zan  
bizitza arazoetan;  
Aitorren itza eben miñean  
baita biotz barrenean  
arbaso mendi ta eleizan  
euskotarren izenean.

VII

Gure izkuntzaren edergarritzat  
gogora daigun San Millan:  
gure itzaren lenen izpiak  
ementxe goratu ziran;  
euzko gizonak idatzitako  
ezaugarri onenean  
euska idatzi maitagarriak  
lur ontan agertu ziran.

VIII

San Millaneko toki onetan  
Komentu bi dagoz tinko  
bata bekoa bestea goiko  
alkartzuz zoragarriro;  
goikoan dagoz bost koba zulo  
bitxiak barru ta kanpo  
arbasoentzat bizi tokiak  
izan zirenak luzaro.

IX

Errien sena itzak agertzen  
erri ta mendi artean  
izkuntz bikaiñak erri bikaiña  
mendi ta solo tartean;  
izen ederrak ugari dira  
San Millango lurraldean  
euska jatorren bizilekua  
leial agertzen lur ontan.

X

Izen ta abizen agiri dira  
San Millanen babesean  
Bitxi bitxika urre antzera  
curen edertasunean;  
erri oneri emon nai dautse  
goratsuna lurrean  
arbaso aren odol gorriaz  
bedeinkaturik haz

XI

Gaurko San Millan bazter ederra  
antxiñateko KUKULLA  
zur eta gogoz sendo ebillan  
Jaungoikoari begira;  
sinismen argiz indartsua zan  
zeruaren esanera  
danez goitikan egiz nai eben  
sinismena zabaltzea.

XII

Bizkai, Gipuzku eta Araban  
jarri zituen sustraiak  
ainbat kobentu agertu ziran  
San Millandarrak jarriak;  
egi-egitan esan giñake  
KUKULLATARREN argiak  
ezan zirela euskaldunentzat  
zerutar itur bidiak.

PAULIN

# KUKUBEL (euskal ipuin zaarra)

Kukubel, artzain txikia, neskato ona zan, eta oso polita ganera.

Beinola baten mendian, ardiak jagotean egoala, maitagarri bat agertu jakon, eta esan eutson:

Kukubel, neskato ona zara-eta, zer gura dozu nik zuri emotea?

— Nik txikilibitu sorgindu bat gura dot. Beraren soinua entzungo dabon guztiak dantzaz jarriko dauazan txilibitu sorgindua.

Eta maitagarriak urregorritzko txilibitu polit bat emon eutson.

Kukubel urregorritzko txilibitu a jotan asi zanean -ene!, gauza arrigarria!— mendiko pago, aretx, ardi, arkume eta loretxuak dantzaz asi ziran. A, bai zala ikustekoa!!

Erriko abadea eiztari amorratua an eta bein, bere txakur eta suizkiluagaz, Kukubel ardiak jagoten egoan toki ondo zan, eta an erbien zelatan, sasiarte baten, ostendu zan.

Kukubel, beti tez, txilibitu sorgindua jotan asi zan. Orduan, eleizgizona, txilibituaren soinua entzunaz batera, sasiartean saltoka ta triskaka asi zan, soineko guztiak urrutu artean.

Aren asarrea txilibitua isildu zanean! Kukubel gordinik jango eban, bada!

Abadeak, urrengo domekan, pulpitutik esaten ekin eutson:

— Kukubel sorgina da eta erre egin bear da!

Biamonean, erri osoa, alkatea aurretik, erriko zelaian batu zan, sorginaren azkena ikusteko.

Kukubel, eskuak lotuta, abarren ganean erreteko ipini eban. Orduan, Kukubelek alkate jaunari olan eskatu eutson:

Alkate jauna, arren, erreta il baino leen, urregorritzko txilibituaz azken abestia jotan itziko deustazu?

Eta alkateak, baietz.

Txilibituaren soinua entzunaz batera, zelaian egozan guztiak, atso aginbako eta agure zaarrak, ume txiki ta gazteak, gizon, andra, txakur, katu eta ango ondomoko guztiak dantzaz asi ziran. Ango zarraparra eta irrintziak! Ango arnasestua eta izerdi beroa bota bearra!

Guztiak neke-neke egin ebazanean, Kukubelek esan eban:

— Bizitzea parkatu artean, ez dot txilibitu au agotik kenduko.

Danak baietz ta baietz erantzun eutsoen, parkatuta egoala, baina arren ta arren txilibitu demontre a isilduteko.

Isindu zan Kukubel eta dantzea amaitu zan.

Eta erritar guztiak Kukubel ez zala sorgina autortu bear izan eban.

Ori atan bazan,  
ez bazan,  
ez neuri esan.

(erri ipuina)

Iniaki MARTIARTU  
1996ko irailean

## BERBA-LAPIKOA

maitagarri = mari, azti-aalmenak dauazan andra ona (sorginaren bestelakoa).

eiztari = eizari, eizan (kazan) egiten dauana.

amorratu = sutsu, burubero, porrokatu (zeozer egitea biziro gogo-gogoko dauana).

suiskilu = zizpa, eskopeta.

-Ren zelatan (egon) = -ren begira (egon), -ren adi-adi (egon).

Triskaka = saltoka, jauzika.

biamonean = urrengo egunean.


arren = mesedez, otoi.

ondomoko guztiak = dan-danak (bape itzi barik).

zarraparra = zarata andi, zalapart, burrundara.

arnasestu = itobear, arnasbear, itoaldi, itomen.

neke-neke egin = guztiz nekatu, indargetu.



**Eusko Jaurlaritzaren  
Laguntzaz.**

Kultur Saila'k diruz lagundutako aldizkaria.

# OBETU DAGIGUN GURE EUSKERA (IX)

## GALDEGAIA - 3

"Izkuntzaren ardatza, besteak beste, aditza dana gauza agiria da. Aditzak bere inguruan darabiz osagaiak, eta bateratu be berak bateratzen dauz. Aditza dogu gidari, argi-emoille, esangurearen adierazle. Aditzik baga, esaldia nora-ezean daukagu, baso illun baten nora joan ez dakiala dabillan ibiltariaren antzera" (ZER, azilla/zemendia, 1986, 2 orri.). Au izkuntza guztiari dagokionez.

Izkuntzaren beste zati garrantzitu bat joskera edo gaztelaraz "sintaxis" dalakoa da. Eta euskal joskera jatorrak badau joskeraren "ardatza" deitu dakioken zerbait. Orixe da *galdegaia* deritzaguna, edo izan bear leukena.

"Aditza izkuntzaren ardatza, beti, joango da esakeraren punta-punta nagusian", irakurri neban antxiña-antxiña ez dala aldizkari baten ("EUSKERAZAINTZA", uztail-iraila, 1994, 11 orri.).

Ez dakit idazleak zer adierazo gura eban berba orreek idatzi zituanean. Ez dodaz ulertzen. Adimen laburrekoa izan ni, eta ezin ulertu. Esapide orokor edo guztizko ori apur bat zeaztu baleu, pozarren izango nintzatekean.

Euskal joskerari gagokiozala, aditza beti leenengo mailan doala esan gura izan ete eban? Ez dakit. Baleiteke. Ba, ori esan gura izan ba-eban, berari zor dauzadan begirune edo errespetu guzti-guztiaz, oker ez ete dagoan esango neuke. Aditza izkuntzaren ardatza izatea gauza bat da, eta joskera edo esaldiaren zati diran itzak zein lekutan ezarri bear diran zeaztea, beste bat, aregaz ezer ikustekorik ez daukana. Euskal joskera jatorraren eta bene-benetakoaren ardatza ez da beti aditza, izkuntzaren ardatza izan arren. Euskal esakunaren osagai nagusia edo esaldiaren "puntaren puntan" daukaguna *galdeagia* da, edo berau izan bear leuke, euskeraz zuzen, artez eta jator idazteko, maixu aundiai jaramon egin gura badautsagu. Galdegaia da (edo izan bear leuke) euskeraren "puntaren punta nagusian", erpin-erpiñean edo gaillur-gaillurrean daukagun jakinkizuna. Ori bai, galdegaia aditza bera danean, orduan bai, orduan esagun jakinkizuna. Ori bai, galdegaia aditza bera danean, orduan bai, orduan esakunaren "puntaren puntan" joango da. Bestetan, ez. Bestetan, esaldiaren beste edozein zati lez, bigarren maillan daukagu, aurreko lantxoan argitu genduanez. Gogoan izatekoa da jakingarri au euskeraz ondo idazteko. Urrengo lerrootan azaldu gura neuke orrexegaitik.

Esaldiaren galdegaia aditza danean, era biko esakerak sor daitezke euskeraz.

*Leenengo era.*

Aditza joka badadi, aditz ori bir-aitatu egin daiteke.

Agerbidez:

— "Une onetan lñakik *zer* egiten dau?", galde egin badagigu, erantzuna onangoa izan leiteke:

— "Une onetan lñaki IBILLI-DABIL, edo ETORRI-DATOR, edo geldi-geldi EGON-DAGO" (En este momento lñaki andar es lo que hace, o venir es lo que

hace, o quieto-quieto estar es..., euskaldun batek erderaz berba egiñez esango leukenez).

Esakunaren beste atalak edo berbak galdegaia dan aditzaren aurrekaldean zein bestekaldean imiñi daitezke:

— "Iñaki *ibilli-dabil* une onetan" (zuzen).

— "Une onetan *ibilli-dabil* Iñaki" (zuzen).

"Iñaki une onetan *ibilli-dabil*" (zuzen).

Edozein erataria euskal joskera egokia da.

Aditzaren erabillera au kontuan arturik, esakuntza oso txairoak eta dotoreak egin daitezke euskeraz. Ikusi:

— "Onek *jakin-daki* gero!" (saber es lo que sabe éste).

— "Onek *jakin* da *jakin-daki* (éste sabe mucho).

— "*Ibilli* ta *ibilli* egin arren, alperrik" (aunque ande mucho, es inútil, "asko *ibilli* arren", esan bearrean).

Zoritxarrez, olako esakuntza jatorrak eta dotoreak galduaz eta galduaz doakiguz gaztelararen eragiñez.

— "Ion sabe *mucho*", gaztelarazko esakuna, adibidez, gaur aonelan itzuliko leuke euskerara:

— "Jonek *asko* daki".

Askoz dotoreago leengo euskaldunak:

"Jonek *jakin* da *jakin-daki*" (oso ederto!).

— "Koldok *asko* ikasten dau". Askoz txairoago:

— "Koldok *ikasi* ta *ikasi* egiten dau (Koldo aprender y aprender es lo que hace).

— "Nekane *asko* ibiltan da". Euskaldun benetakoak:

— "Nekane *ibilli* ta *ibilli* egiten da" (andar y andar es lo que hace).

Idazten dogunean, onango esaldi jatorrak eta zuzenak erabilli egin bear gendukez, jatorrak, dotoreak diralako eta erriak ondo ulertzen dauzalako, batetik, eta galdu ez dakiguzan, bestetik.

*Bigarren era:*

Aditza esakunaren galdegaia izan eta aditz ori jokatu ezin danean, "egin" aditzaren bidez emon oi dogu aditzen galdegaia aditza bear dala.

— "*Zer* egiten dozu egun guztian?", itaundu ezkerro, erantzun egokia auxe:

"Egun guztian irakurri ta irakurri eta idatzi ta idatzi *egiten* dot". "Irakurri" eta "idatzi" aditzak dira galdegaia esakun onetan, eta "egin" aditzaren bitartez agerrazoten da zertzelada aori orrexegaitik.

Aditza jokatu arren be, esakera au erabilli daiteke, gura izan ezkerro:

— *Zer* egin dozu gaur goizean?"

— Gaur goizean *ibilli* ta *ibilli* egin *naz*", edo "Bilbotik etxera etorri *egin* naz".

Galdegaia dala eta ekarri dodazan iru lantxook norbaitentzat argigarri izan badira, poztu be biziro poztuko nintzateke.

AGIRREGABIRIA



# QUINTA-TORRE 100 URTEZ BAKION IKUSGARRI

QUINTA-TORREk 100 urte bete dauz 1896. urtean amaitua izan zanetik. La Habanan etxe andoei QUINTA izena emoten jaken eta TORRE izenaren jatorria oraintxe azalduko dot.

QUINTA-TORREren sustraiak Fernando Vilaren erregetzaren garaitik datoz. 1820. urte-inguruan, Bakio erri txiki eta nasaia izan zanetik. Baserri sakabanatu gitxi batzuk, eleizea, Elexpuru eta Hormaza jauregiak baino ez egozan. Erriaren beste erdia, gaur eguneko Bentalde, ez zan aremunez osoturiko aritza bat baino.

Orduko Bakio aretan, Balanda baserrian albiste-barriak egozan. Baserri au, Juan Bautista Andraka Balanda'rena zan, bere amarengandik jarauntsia. Etxea bizitza bikoa zan. Baten, Juan Bautista Andraka bizi zan eta bestean, aren alabea Isabel Juan Maria Bautista Barturen Andraka zan, Balandako etxealabea. Au 24 urtegez Jose Torre Goi-rienagaz ezkondu zan eta eukezan seme-alaben artean, bi bikotzak izan ziran, Claudio eta Juan Bautista Torre. (Familia au Bautistaz beterik egoan, aurki!).

Danak karlistak izan ziranez kanpora urten bear izan eben. Oneek be, La Habanara joan ziran diru egitera eta 1890. urtean Bakiora biurtu ziran, diru askogaz biurtu be. Balanda ondoan etxe andi bat eta QUINTA-TORRE eregi ebezan. Familia arazoak zirala eta, banandu egin ziran. Claudio Balanda etxe andi barriagaz geratu zan eta Juan Bautista QUINTA-TORREgaz. (TORRE izena abizenetik jatorriko etxeari).

QUINTA-TORREk, batetik baeban ibiltoki bat eleizarraino, ameriketatik ekarritako palmera batez, banbuez, pikondoez, eta abar apainduta. Eta bestetik, arkaziaz beteriko erreperiderainoko beste ibiltoki bat. Landare guzti oneek eta baita lorategikoak be Mendigurenoko Josetxuk jagoten ebazan.

QUINTA-TORREko bizitza orduko andikiena lakoa zan. Neguan mutilak Etxepinto Hermanoen eskolara joaten ziran, an jan eta etxera, ostera be, arratsaldean etorten

ziran. Udan goizez, aritzara joaten ziran, alokututako zaldiburdi baten eta arratsaldean "tertulian" geratzen ziran, palmerapean, indianoak bailiara. Euren artean gazteleraz egiten eben eta serbitzarietaz eta baserriarretaz euskeraz.

Bakion baegozan udatiar etxebizitzak eta itsasbedar bainuak be. Leenengo Luisenen eta gero Arimunen.

Luisenen egoten ziran udatiarren artean Zubizarreta sendia izaten zan, iru semegaz. Bata. Felix. Juan Bautistaren alabea zan Juanitagaz ezkondu zana, QUINTA-TORREko jaube biurtuz. Oneek bederatziti seme-alaba euki ebezan. Gerratea hitzu zanean (1936-1939) eta militarrek Bakiora eltzean, agintari militarrek QUINTA-TORRE koartel nagusi biurtu eben, etxeakoak kale gorrian itzita. Felix Zubizarreta eta Juanita Torre Venezuelara (Caracas) aldegin eben curen seme-alabekaz eta QUINTA-TORRE-ra 1949. urtean itzuli ziran. Peli euren semeetariko bat oso gazte il zan eta Estitxu alabarik gazteena Caracasen jaio zan. Besteak, Jon, Arantza, Mikel, Eli, Ander, Gorka eta Ugutz dira.

Ordutik aurrerako QUINTA-TORREren istoria jakin badakizue.

ANARTZ ORMAZA  
(14 urte)

## BERBA-LAPIKOA

garai = sasoi.

jarauntsi = arbasoengandik ondasunak artu.

etxelaba = oinordekoa dan alabea.

biurtu = atzera etorri, itzuli.

eregi = etxeak egin, eraiki.

## IRAKURLEAI OARRA

ZER aldizkariak eta EUSKERAZALEAK ALKARTEA'K ba-dauke Bilbao inguruan urteko arpi-detza eskuratzeko erea. Etxerik etxe joaten da kobratzaillea. Baiña gauzea ez da ain erreza errietan. Orregaitik eskari au egiten dautzuegu: Bialdu eiguzue txartel edo txeke bat. EUSKERAZALEAK ALKARTEA'ren izena ipiñi ta 2.000 pezeta dirala idatzita. Txartel ori sartu karta-azal baten eta gainean zuzenbidea ipiñi: EUSKERAZALEAK ALKARTEA.

Colón de Larreategi, 14, 2º, eskoia. 48001 BILBAO.

Eskerrik asko urtero zintzo-zintzo ordaintzen dozuen guztioi

## BIZKAIEREAREN ALDEKO POSTUREA

Azkenengo ogei urteotan gero eta Bizkaiko bertsolari gixiagok egin izan dau bertsotan bizkaieraz. Inork ez ei daki zeatz-meatz zergaitik. Egoera au ikusita, eta leenagoko urte askotako tradizionaren aurkako oker bateri amaierea emon guran. Bizkaiko Bertsozaleen Alkarteak ori errotik aldatutea erabagi dau. Orretarako, Xabier Amuritzak landutako beren-beregiko metodologiaz eta bera irakasle dala, joan dan garagarrilean Muxikako Ariatza auzoko bertso eskolan egun biko barrenaldia egin dabe ogeita amar bertsolarik, bertsotan bizkaieraz egiten ikasteko.

Xabier Amuritzak berak bai EUSKALDUNON EGUNKARIARI eta bai EGINERI esandako berben artean, urrongo oneexek dakartsueguz:

"Bizkaierea guztiz alboratuta euki dogu eta ori bertsolaritzan, beintzat, aukera aundia izan da. Bein baino sariagotan esan dot Bizkaiko bertsolaritzearen arazorik andiena bizkaierea dala. Bizkaieraz ez dalako egiten. Bearbada, bertsolariak alik arinen ataratearren, bizkaierearen arazoa aaztu egin dogu. Bertsolari gazteak eta izena artuten dabenak bizkaieratik guztiz errotik atarata badagoz, nora goaz? Euskaldunek orokorrean eta bizkaitarrek, batez be, euren izkuntzeari gutxieritxi izan deutsoe eta ori gaindituteko sasoi egokia da au.

Azken baten, bai bertsolaritzeari jagokon mailan, bai gizartearen beste arloetan be, euskalkia sendotuteko asmoa hadago or barruan. Bertsolaritzeak, dauan izen onagaitik, oinarri sendoak jarri daikez or.

Au, baina, ez da bizkaitarrismoaren apologia. Ni ez naz orregaz batua txarra dala esaten ibiliko, edo batuaren aurka joan bear dogunik esaten ibiliko. Au gauza naturala da. Etxean darahilgun izkuntzea bertsotan be erabiltea".

Xabier Amuritzak esandakoen artean, berak bizi izandako urrongo jazokera bitxia be badakarsku:

"Beinola baten, Iratxe Ibarra eta biok Deustuko Matxintxu euskaltegian berbaldia egitera joan gintzazan. Iratxe Ibarrak, berbaldia asi orduko, parkamena eskatu eutsen bertan egozan entzuleei, euskera batuan berbaldia emoteko gauza ez zala-eta dok gauza etxeokan bertsotan egiteko!

Bizkaiko euskaldunei euren konplexutik askatu eta euren nortasuna sendotuten lagundu leike erabagi onek".

Egia esateko, aspaldian burutan erabili izan dodan itauna izan da. Ainbat denporatan ganera. Zergaitik ez bizkaieraz be? Neuk be naturaltasunik eza agiria asmatu deutset Bizkaiko bertsolari askori. Zorionez, Xabier Amuritzak untzean bete-betea jo dau, ostera be. Eta orain dala 28 urteko Derioko Seminarioko jazokerak gogora jatordaz braustada baten. Eta orduan bertan nonork grabatutako GOGOR diskoan agertuten diran itxaropenezko bertsoak jatordaz gogora. Orduan be, Xabier Amuritzak, agoa eta burua ipiniz, bete-betan aparau egin eban:

"Kantatuaz, kantatuaz zorion eta penak.  
Kantatuaz sortzen dira gure itxaropenak.

Goizean goiz-argiari kantuz dabil txoria.  
Udabarriz eguzkiak sortuten dau loria.  
Euskaldunen biotzari zor jako umoria,  
kantatuak penak kentzen dator bertsolaria".

Iniaki MARTIARTU

### IPUIN-SARIKETA 1996

(BILBAO'KO UDALAREN BABESPEAN)

Urte guztietan lez, aurten be Euskerazaleak Alkarteak Ipuin-Sariketa eratzen dau, baiña aurten sariketa au Aita Santi Onaindia'ren omenez izango da eta ipuiñak edo idaz-lanak bere giroan izatea nai genduke. Ona emen urte guztietako egitaraua:

- Ipuñak euskeraz eta erriak erabilten dauan euskalkia erabiliaz idatziak izan bearko dabe eta idazkerea, EUSKERAZAINTZA'k argitaratua eta ZER aldizkarian erabilten dana.
- Ipuñak asmatuikoak edo errian batuak izango dira, ez idatzita dagozanak edo itzulpenak.
- Luzeera iru orrialdetik lau orrialdera, idazkiñez idatzita eta bitarte bi dirala. Saria irabazten dabenak ZER'en argitaratuko dira.

Saririk irabazten ez dabenak be bai ipuiñaren barrenean idazleak baimena emoten dauanean.

Azillaren azkenerako EUSKERAZALEAK ALKARTEA'ren etxean (Bilbao'ko Colon de Larreategi. 14, 2<sup>o</sup> eskoia) egon bear dabe. Abenduaren azkenerako emongo da maikoan erabagia eta ZER'en agertuko da, urterrilean, baita DEIA Egunkarian be albait lasterren.

- Sariak lau izango dira:

- 1° 40.000 pezeta.
- 2° 30.000 pezeta.
- 3° 20.000 pezeta.
- 4° 10.000 pezeta.

- Ipuñak izen ordeagaz bialdu eta karta-azal txiki baten barruan izen-ordea ta izena.

EUSKERAZALEAK

# SORGINAK (euskal ipuin zaarra)

Antxina baten. Euskal Errian sorginak bizi ei ziran.

Atso zaar sorginek sutondoan ostuta lapikotxu bat eukiten ei eben saguzaar, suge, txantxiku eta gautxorien koipez beteta.

Koipe onetaz soina eta oinak igurdita. erratz ganean aizetan egaz, Akelarrera joaten ei ziran, urrengo au esanez:

"Lamo guztien azpitik,  
sasi guztien ganetik."

Sorginen batzarrak akelarrean bariku gauetan izaten ziran.

Inpernuko deabrua berbera zan, aker haltz baten antza artuta, sorgin guztien buru.

Batzarra asteko, sorginek bira-biraka zoratu artean dantzan egin ostean, banan-banan Aker Baltzari atzekaldean, eperdiko zuloan, mun bat emoten eutsoen. Gero. Aker Baltza lautxakurren jarrita, sorgin batek, aren bizkar ganean, Meza Baltza emoten eban. Meza erdian sorgin guztiek miin loiaz, Gurutza Deunaren aurka itzelezko biraoak esaten ebezan.

Aker Baltzak, azkenean, bere suzko eta kezko aulkitik sorginei berbaldi luzea egiten eutsen, kristinau zintzoei zelan kalte egin erakutsiz.

Goizaldean, oilarrak kukurrukku jo baino leen, sorginak etorri ziran lez. erratz ganean. nor bere errira biurtuten ziran. okerkeriak egitera biurtu be.

Beinola baten, baegoan Berastegiko errian (Gipuzkoan) ume bat izan eban andra bat. Bazan ume a sagar lorea baino ederra goa!

Berastegin be atso sorgin bat bizi zan, baina sorgina zanik inork be ez eutson susmo txarrik artuten.

Sorgin a, euli antza artuta, giltza zulotik, umea lotan egoan lotokira sartu ei zan, eta umearen agotik sartuta, ito egin eban.

Berastegin guztiek. umetxua berezko gatxez il zala uste izan eben.

Baina, atsoa sorgina zana ona emen zelan jakin eben.

Bein baten. Berastegiko etxeoandra bat gaez sutondoan goruetan jesarrita egoan. Gauerdian, bat batean, katu baltza kezulotik beera etorri jakon. Emakumea ikaratu egin zan eta urrengo goizean bere gizonari aurreko gauean zer ikusi eban esan eutson.

Urrengo gauean. gizona, andrearen soinekoak jantzita, sutondoan goruetan asi zan.

Aurreko gauerdian lez, kezulotik katu baltza jatsi zan, baina katuak gorulariari bizarretan andrazkoa ez zana igarri eutson.

Orduan, bada, katu baltzak olantxe esan eutson:

— Ene! Gizona eta goruetan?

Eta gizonak burduntzia katu baltzari jaurti eta erantzun eutson:

— Ene! Katu eta berbetan?

Eta katu baltzari burduntziaz hernazurra ausi eutson.

Biamonean goizean, atso sorgina Berastegin. bernazurra ausita, errenka ezin ibiliz. kalean agertu zan.

Olan. erritarrek atso a sorgina zana jakin eben eta egin eban txarkeri guztien orde Berastegiko enparantza erdian erre egin eben.

Ori olan izan bazar],  
sartu daitela kalabazan.  
Eta urten daiala  
Urguruko plazan.

Iguriako boluan  
eundaka sorgin gauean;  
Iguriako boluan,  
dantza dantzari kantetan.  
Iguriako boluan  
amaika sorgin gauean;  
Iguriako boluan,  
dantza dantzari kantetan.

Areek bai gorputz arinak,  
arpegi argi, oin bizkor!

"Klin, klon. klin eta klan soinuaz  
ekiok ik, bolu gogor."

Aldameneko lerroian  
mozolo zaarren kurrinkak;  
ta Goikoetxe egalean  
ontzearen erantzunak.

Argi dizdirak aidean.  
egaka suzko anderak.

Anbototik beerantz gorantz...  
errota ondoko dantzak!

Anbotoko Anderea  
batzarre-buru nagusi;

bolu ondoko zelaian  
sorgin-oztea nabasi.

Sorgin gaua don, itxuraz:  
ilargi bete, ozkarbi;

izarrak dizdiz, aizea  
lotan... Au gau zoragarri!

## BERBA-LAPIKOA

txantxiku = apo, zapo.

soin = gorputz

erratz = isats. inarra, eskoha.

mun = buruan izan ezik, gorputzaren edozein lekutan emoten dogun musua; buruan emon ezkerro, musu esaten jako.

lautxakurren = lau anka ganean.

birao = berba zantar, madarikazino, gordinkeria.

-eri susmo txarra artu = nonorengan uste onik ez izan. susmatu.

goruetan egin = ardazketan egin, aria egin.

gorulari = goruetan egiten dauana.

ausi = apurtu.

biamonean = urrengo egunean.

errenka = trinkili-trankala, trinkilika, koxuka.

enparantza = plaza.

bolu = errotarri bien artean azpikoa dogu.

lerdoi = pinudi.

kurrinka = txarriak egiten dauan zaratea. (Emen. baina, mozoloak).

nabasi = naastuko, naasi.

Iniaki MARTIARTU  
1996ko irailean

(er<sup>f</sup>: ipuina)

# ESKUAN ATZAMARRAK

Otz garanetan, eskuetan eskunarruak janzen doguz. Gauzei oratuteko eskuetan daukaguzan ATZAK erabilten doguz.

Esku bietako atzak guztira amar dirana badakigu be. Orre-gaitik guk, Bizkaian, eskuetako atzei ATZAMARRAK izena emoten deutsegu.

Oinetako atzei, barriz, bean dagozalako edo, BEATZAK esaten deutsegu. Orduan, eskuan atzamarrak, oinean beatzak.

Dakigun lez be, esku-oinetako atzak guztira ogei dira eta ATZAMAR-BEATZAK izana dabe.

Baina, badakigu eskuko atzamarrei, bakotzak zelango ize-na dauan edo, zelan esatan jaken? Ba, ara:

- TXIKERRA (edo txikia)
- NAGIA
- LUZEA (edo sendoa)
- SENDOA (edo bizkorra)
- LODIA

Bizkaia barruan erririk erri be, atzamarren izenak era bate-ra edo bestera erabilten doguz. Aurrean dozun izen zerren-datxu orrek gure errialdean geien zabaldutako atzamarren izenak dakarskuz.

Zuetariko askok aaztuta, edo ez zenduezan inoiz entzun, ezta? Ba, ikasi, erabili eta irakatsi eizuez.

Eta ikasteko erarik errezena abestien bidez izaten dan ezkerro, aor bada, gure amamak txikitari geuri abesten euskun ume-abestitxua:

La lara la la, la la lara la lara,  
la lara la la, la la lara la la.

Leenengotxu ori,  
punta beatz ori,  
beste guztien artean  
txikerra dok ori.

La lara la la,...

Bigarrentxu ori,  
punta beatz ori,  
beste guztien artean  
nagia dok ori.

La lara la la,...

Irugarrentxu ori,  
punta beatz ori,  
beste guztien artean  
luzea dok ori.

La lara la la,...

Laugarrentxu ori,  
punta beatz ori,  
beste guztien artean  
sendoa dok ori.

La lara la la,...


Bostgarrentxu ori,  
punta beatz ori,  
beste guztien artean  
lodia dok ori.

La lara la la,...

Amaren pozgarri  
eu az bene-benetan,  
egik ba lolo laztana  
neure besoetan.

La lara la la,...

Iniaki MARTIARTU  
1996ko irailean




## LENENGOTXU ORI

La - la - ra - la - la la - la - la - ra - la -  
la - ra. La - la - ra - la - la, la - la - ra - la - la .  
Le - nen - go - txu o - ri pun - ta bi - atz o - ri, bes -  
te guz - ti - en ar - te - an txi - ki - ña dok o - ri. La o - ri.

## BIZKAITARRAI BIZKAIERAZ

# EUSKALDUN AZTARNAK VIII

## ITXASONTZIAK



### MERKATARITZA

– Bidasoa'ko Asturiaga kaian badago ontzi bat ondoratuta.

– Urte auetan makiña bat arkeologi gai arrapatu dituzte bertatik, etxeetan gordeta daudenak. Burdeos'en ere, Garona ibaiean, aurkitu zuten beste bat 1964'garren urtean eta bere barruan "sigillata hispanica" topa zutela, esanda degu. Baña, arazo au ez da or amaitzen. Begira zer dion "Brigatium" aldizkariak, 1983'ko 4'garren alean, gallegoz.

– Gallegoz ipiñi bear al dezu?

– Euskeratuko det: "Mundu zaarreko merkataritzarik geiena itxasoz egiten zan, naiz-eta neguan, eta eguraldi txarretan uretara irten ezin... Erromatarrek bazekiten, egoaldetik gorantz. Atlantiko itxasoan sear ibiltzen. Betika'ko emaitzak, Britania eta Rhin ibaieraiño eltzen bait ziran... Batez ere I eta II'garren eunkietan... Orixen da, diot nik, Arditurri zillar-meatzetako garaia.

– Baña, itxasoan gaeuz ez ziran ibiltzen.

– Egunez bakarrik ibiltzen ziran eta gaberako kaiaren bat billatu bear zuten. Gure itxas-ertzeko kaiek ontzi asko ikusi zituzten alde batera eta bestera ibiltzen. Aldizkari

gallego onek dionez Cortegada'n (Vigo) badago beste ontzi bat ondoratuta eta bertatik ataratako "terra sigillata", italica da...

– Orra Burdeos, Bidasoa eta Vigo, iru mugarri eta ezauzarri.

– Kantauri itxasoan ontzi ondoratuak aurkitzea ez da gauza erreza urak baztarrak asko astintzen duelakoz; alaz ere, or daude iru itxasontzi oiek merkaratzi ugari baten ezaugarri. Erromatarrek errez ibilli ziran geure itxasoan batetik bestera. Vigo'ko Cortegada'n ontzia aurkitzea batera dator, Labrador'en XVI'garren gizaldiko euskaldun ontzia topatzearekin. Canada'ko jakintsuek arrituta daude San Juan izeneko ontzi orren taju eta sendotasunakin... Erromatarren garaian, ordea, ez ziran gauzak geureartean orrela gertatzen.

– Nola gertatzen ziran ba?

### CANOA MONOXILA

– Estrabon jaunak (Geog. III, 3.7) dionez, Hispania'ko Ifaraldekoek ontziak erabiltzen zituzten naruz egiñak edo bestela enbor batekin. Noiz? Kristo jaio aurreko eunkian.

## KONDAIRA

Oietako "Canoa Monoxila" Irun'en topa zuten, 12 metrora sakonean, 1954'ean, oiñarri batzuek egiten ari zirala. Baña, ez zuten gorde.

– Zenbat orrelako!

– Beraz, gure aurrekoek orrelako ontzi ximpleekin ezin urrutira joan; baña, kosta aldean ibiltzeko naikoak ziran eurak. Ontzi aundiek ere ez bait ziran itxasoan barrurago joaten.

– Zelan egiten zituzten "monoxila" oiek?

– Enborrari zulo luzanga bat egin, gizona bertan sartzeko modukoa eta naikoa zan orrekin. Gerora, enbor orreri beste bat lotu aldamenean; orra bi enbor batera. Egoak ipini, ondoren eta, azkenik, egurrak alkarri lotu, enborren orde... Ontzi oien odoan erromatarrenak, izugarriak ziran... Nagusitasuna euren eskuetan zeukaten.

– Gure mendietako artzaiek, eta artzai ez zirenek, zer ez ote zuten ikusten itxasoan...

### MARKATARITZAKO ITXASONTZIAK

– Lenengo aldiz itxaso zabaleko Fenizioek izan zuten euren eskuetan, 1500 urte Jesu jalo aurretik. Egipto'n ere ba zituzten auen antzekoak. Baita Palestina inguruko Tiro errian be, onela esaten bait dio Erregeak Salomon'eri: Nik ebagiko dituz Libano'n zedroak eta itxasoz, atoian, erman-go dituk zuk esaten didazun zeure erriko itxas-ertz batera...

– Asia'n eta Grezia'n izan zituzten itxasontziak...

– An ibillj ziran ibillj grekotarrek, ugarte batetik beste-

ra, etenik gabe itxasontzietan, Erroma sortu orduko'... Baña, sortu ondoren, erromatar merkatari-ontziak agertzen diranean, guztiak ematen dute itxura berdiña: Guztiak dira barru zabalekoak eta borobil antzekoak; guztiak dute brankako bularra (roda) irtena eta popako korasta goruntz egiten duena eta aurrerantz makurtzen dana antzar-lepoaren itxura artuz...

– Eta, brankako bularra?

– Aurrerantz okertzen dana, olatuak obeto erdibitzeko. Agertzen diran irudi batzuetan, aurreko mastako oiala, atzeko "maiorra" baño aundiagoa eta, geinetan, aurreko mastan oial txiki bat eramaten dute "artimon" izenekoa, ontzi-gobenuaren laguntzarako, ez bait dute oraindik lemarik asmatu... Timoiaren lana arraunekin egiten dute, trañeretan bezela.

– Orduan, lemaren lana arraunak eta artimonek egiten al dute?

– Ez zan beste lemarik asmatu oraindik. Lenengo euniki-kiko barkumarrazki batek txabolatxo bat darama aurreko aldean eta oial aundiaren gañean beste ojal txikiagoak (velas de gavia)... Alea (batez ere, garia) erametekoak oso aundiak ziran. Pompeia'ko arlosa batean xixilikatua ikusten degu barku bat. Aren antzekoa izango zan Grezia'ren El Pireo ikusi zuna, II'garren eunkian, Luziano'k (barregarrien idazleak).

– Nolakoa zan ba'da?

– Barruko mariñelekin itz egin ondoren, onela dio, arri-turaz beterik: "55 metro luze, 15 metro zabla eta 13 metro sakonda. Eta, mastaren luzeroa! Eta arrek bear ditun estat-

#### *Naves egipcias*


1.- Los remeros de la primera nave usan los remos como en las piraguas.

2.- Los de la segunda bogan como en las traineras.

En esta tercera imagen hay remeros y vela. El timón lo hacen con los remos.


### **EGIPTO'KO MERKATARITZA MILLA URTE KRISTO AURRETIK**

*Una reproducción de este navío egipcio mil años a.C.*



Bajorrelieve de una estela funeraria de Pompeya. Data del año 50. Según este modelo se reconstituye más abajo un modelo de nave romana para el transporte de grano.

MERKATARITZA



xak eta sokak tente irauteko! Popako korasta ateratzen zan gora antzar baten itxuran. Eta brankako bularra Iris'en irudiarekin! Goiko oial txikia (gavia) gorri-gorri, margoak, aingura bere molineterekin eta popa-aldean kamaroteak... Dana zan zoragarri! Esan zidatenez, ontzi arrek Atenas uria urte betean mantentzeko aria gari, ekarri zezakean aldiko...!.

– Zenbat mariñel?

– Barruko jendeak gudaroste oso bat zirudien eta kapitana zaartxo batek erabiltzen zituan atzeko lema aundiak (alde bakoitzean bi arraun galanta) makillatxo bategaz, gauzarik erreza bezela...". Onen esanekin eta Pompeia'ko irudiaren bitartez, atera dezakegu nolakoak ziran, gutxi gora-beera, merkataritza-ontziak.

– Zertzuk zituzten ba'da?

– Ona zertzuk: Balkoia popan, oial batekin estalia, kapitana eta bere lagun bereizientzat; lemarako, arraun aundiak, aparixu bategaz uretatik kanpora jasotzen diranak; beste txabola bat erdian pillotu eta beste aukeratuentzat; eskotillak barrura sartu eta barrutik irtetzeko; branka edo proa aldean, egur Iodikote bat zer edo zer xintxilika ipintzeko

(serviola) edo bestela zaintzallearentzat (vigía); galeri bat branka inguruan; oial aundia eta txikiak (gavia); oialak bildu eta gordetzeko sokatxoekin; artimoia bere bilkurekin...

– Orrelakoak izango ziran euskaldunek itxas-ertzetik ikusten zituzten merkataritza-ontziak?


Orrelakoak eta oien antzekoak. Ona Apokalipsis liburuan Joanek zer dion, Erroma'ren azkena ikusten duenean (18,1-20): "Merkataritza-ontziak (11-13) negar egingo dite eta illetak joko dituzte arengandik, aien salgairik ez bait du geiago inork erosiko; ez urre-zillarrik edo perlarrik, ez liñu, ez purpura, seda edo eun gorririk; ez usai onezko zurik, ez marfillezko edo zur ederrezko ontzirrik; ez brontzezko, burdiñezko edo marmolezko; ez kanela, ez zinamomo, ez lurrin gozorik; ez mirra, ez inzentsurrik; ez ardo, ez oliorrik; ez iriñ, ez garirik; ez zamari, ez ardi, ez zaldi, ez gurdirik; ez esklabu eta ez gizakumerik...". (15) "Gauza auen merkataritza-ontziak eta aren bizkar aberasten ziranak, urrun geldituko dira..." (17) "Eta ontzigidariak, itsasoan portuz-portu dabilzan mariñelak eta itsasotik bizi direnak, urrun gelditu dira..."

ARRINDA'TAR ANES

# KONDAIRA



*Mosaico ventano. Naves en el puerto de Ostia, el puerto de Roma.*





## MERKATARITZA

*Reproducción de un mercante romano sacado de un bajorrelieve del puerto de Ostia. Data del siglo III de la Era Cristiana.*




*Nave de carga romana. Varios individuos desde tierra introducen el barco por la ría al puerto. Este operación se ejecutaba en Deba en el primer tercio del siglo XX para introducir por la ría los barcos de vela.*





Buque de madera: detalles de proa y popa  
 ZUR-ONTZI: BRANKA TA TXOPAKO ZER-NOLAK

Buque de madera: vista exterior de la sección de proa  
 ZUR-ONTZI: AURRE ALDEAREN KAMPOKO-SO



---

---

**BERTSOAK**

---

---

**ANASAGASTI'tar INAKI**

Biziaren ederra  
gaztetan loratzen da  
maitasun artean;  
egia da gizona,  
egia da andrea,  
bi bat diranean.

Orri biren artean  
usain ona darie  
larrosa barriak;  
neska mutil maiteak  
itz-lurrunetan dabiltz  
ederrez jantziak.

Ontasunaren garra  
usoaren dirdiraz  
darizu, Iñaki:  
eztiaren gozoaz  
hekizue bizitza,  
betiko, maiteki.

Seme barriak dakus  
urrezko lora-artean  
Euzkadi maiteak;  
izadi loratusa  
ezan bei euzko luna:  
alaba-semeak.

Dagonillak amabost;  
Andre Mari jaia,  
amaren kutsuaz;  
andrerik onenaren  
egunez lotzen zare  
bizitza kateiaz.

Onginaiak askatzen  
maitasunaren leia  
biotz barrenean;  
maitasuna da poza  
bizitzaren gar oro  
elkartasunean.

Betor urretxindorra  
zugana kantari  
bizitza buztian;  
kanta maitasunari  
bizitza barri ortan  
Aberri maitian.

**EUZKOTARRA**

Euzkotarra, nor zara...?  
Noren kideko zara  
biziaren garretan...?  
Zer daukazu barnean,  
onaren disdizetan,  
izate orretan...?

Zure jakituria,  
ederretan ederren,  
agertzen lurrean.  
Ez da zapaltzaillea...  
Eredua dariozu  
gizonen artean.

Zure askatasuna,  
berez, maite dozuna  
giz eskubidetan...  
kendu egin nai deutsu  
etsai-ankerkeriak  
ezpaten puntetan.

Zu, gizon erraldoia,  
ez zara menperatu  
gaitzaren indarrez:  
etzaitu il etsaiak,  
zure nortasunian  
bizi zara garrez.

Izar biren antzeko  
begi ederrak dozuz  
argi eriotan;  
zure bake zuria  
otsanki, darioe  
itur gardenetan.

Zer dozu biotz ortan.  
odolez urretuta,  
oro maite naian?  
Zer ezkutuzko indar  
daroazu dardaraz  
irudi bizian...?

**BILDURRA NAGUSI**

Gizonen ara-bera,  
basamortu onetan  
bildurra al da nausi...?  
Gizarteko auzia  
indarpean al zagoz,  
ez il ta ez bizi...?

Zergaitik da lurrean  
ainbeste gogorkeri...?  
giza galgarria...!  
Zapalkeria baltza,  
zu, al zabiltzaz austen  
bizitza sustraia...?

Arrokeria ba'litz  
munduren sortzaillea...  
ai ondamendia...!  
Guzurrez ta iraiñez  
arropuzak austuren  
izkilluz erria.

Ta, zu, gizon zuzena,  
nora begira zagoz  
bildurren artian...?  
Zu baztertzen ba'zara,  
muskerra jaikiko da  
sasitza baltzian.

Gizonaren indarra  
maltzurkeri azpian  
ez dau ito bear;  
erriaren gar sena  
egiak jasoko dau:  
ez egon iltzear.

Erazoetan dabiltz  
Jaungoikoa il nairik:  
bizitza Jabea...  
Noren bildur izango,  
sinismena ba'dago  
gizonen adorea...!

Guzurra, iñoiz, ez da  
gizozteen bildurgarri  
gorputza ilkeran;  
egia dago deika  
gogoaren muiñetan  
giza-izakeran.

# KEPA DEUNAREN OILASKOIA

## (euskal ipuina)

Beinola baten, beste asko tez, Kepa Deunak Jesukristo-ri bere etxera, arren, bazkaritan etorteko eskatu eutson. Eta Jesukristok baietz erantzun eutson, pozik joango zala erantzun be.

Kepa Deunak orduan, pozarren, maisu maiteari maaaira atarateko oilasko gizen, samur-samur bat il eta labean erre eban.

Otordua eldu zanean, Jesukristo, goiz osoan berbaldiak egiten lanpetuta, ez zan inondik inora agiri.

Gosetu zan Kepa eta sabelean urdaila glu!, glu! egiten asi jakon. Labean erretako oilaskoaren usain gozoa bere sudurzulo luzeetan barrura sartu jakonean, sabelzorria il ezinik, dart! Aiztoaz oilasko koipetsu, errearen izter bat ebagi eta berealako baten irunsi eban. Gero, kontuz kontuz, Jesukristok ez igarteko, oilasko ankabakarra erretiluan ipini eban, izterbako aldea beerantza begira, jakina.

Andik lasterrera Jesukristo etorri eta bere ikasleekaz maaian jesarri zan. Bazkari aurreko otoitza esan ostean, aiztoa eta lauortza eskuetan, Jesukristo maailegunei oilasko bananduten asi zan.

Ene! Ene! Oilasko izterbakarra non agertu zan!! Eta olan zirautson Kepari:

—Ene, Kepa, oilasko au ankabakarra dogu.

Besteak, orduan:

—Bai, Jauna, oilaskoak ankabakarrak dira.

—Ankabakarrak?, Jesukristok.

—Bai, Jauna, ankabakarrak, Ez ete da Berori, bearbada gogoratuten, munduaren asikerean, paradisuan abereak eta egaztiak egin ebazenean, oilaskoak ankabakarrak egin ebazala?, erantzun eutson Kepak.

—Ez nekian olangorik, Kepa, zirautson Jesukristok.

—Egi-egia da, Jauna. Alantxe da. Etorri beite, osterantzean, gaur irlundean oilotokira eta berorren begi-begiez ikusiko dau, inotson Kepak.

Oilasko izterbakarra jan eben, bada, Nazareteko mama gozoa edan eta itzaspertua egin ostean, bazkaria amaitu zan.

Arrastian, Jesukristo, barriren-barri be, bere erritarrei zerurako bidea erakustera joan zan.

Kepa, arrantzalea zan ezker, itsasora sareak jaurtitera joan zan.

Ilunabarrean, Jesukristo ta Kepa oilotokira joan ziran alkarregaz. Oilaskoak otan lotan egozan, dan-danak anka baten ganean lotan egon be.

—Ikusten dau, Jauna, ikusten? Oilasko guztiak ankabakarrak dira, esan eutson Kepak.

Orduan, Jesukristok txalo bat jo eta oilaskoak, ikaratu-ta, kikirrikika asi ziran. Eta esan eutson:

— Orra or, Kepa, or dozuz, zure ankabakarrak ankabiko eginak.

Eta Kepak akiakulaka:

—Jauna, gaur eguerdian jan dogun oilaskoari be, Berorrek txalotxu bat jo izan baleutso, ankabiko laster egingo zitzakean.

—Ai, Kepa, Kepanton. Esakera zaarra da: guzurtia arrapatuten da errezago, ankabakarra baino. Eta, badakizu, esakera zaarrak guzurrik ez, erantzun eutson Jesukristok.

Onetan, oilarrak kukurruku jo eta ipuin polit au amaitu.

Ori olan izan bazan,  
sartu daitela kalabazan.  
Eta urten daiala  
Lapikolurreko bidean.

(erri ipuin)

Iniaki MARTIARTU  
1996ko irailean

### BERBA-LAPIKOA

arren = mesedez, otoi.

pozarren = pozaren pozez, poz-pozik.

gizen = lodi.

samur = bigun, guri.

otordu = bazkalordu, jatordu.

lanpetuta (egon) = bearrez beterik (egon)

sabelzorri = gose andi, gosegorri.

erretilu = plater.

lauortz = norberak jateko erabilten dauan sarda txikitxu baten antzeko tresnea.

irausti = esan.

Berori = agintari, abade eta nagusiei BERORIKAN egiten jake, aditza beti irugarren pertsonan erabiliz. (Berori DA = zu zara)

egazti = egan egiten dauan edozein abere.

mama = ardao.

itzaspertu = barriketaldi luzea.

barriren-barri = barriro, ostera be.

ilunabarrean = ilundean, ilunkeran.

ota = oilotokietan egoten dan taket luzca, oiloek ganean lo egin daien.

kikirriki = oilaskoek egiten daben zaratea.

akiakula = atxakia, estakuru.

kukurruku = oilarrak egiten dauan zaratea.



## *Betidanik.*

Itzau begiak une batez eta  
begiratu zeure inguruari.  
Eraikiñak, kaleak, aurtzaroan jolasten  
zendueneko lekuak, ikastegia... Ainbat  
eta ainbat gauza ez dira leengoak, ez da?  
Garaiak aldatu egin dira. Ezin ezetz esan.  
Aiekin batera, zuk oraindik atsegin  
dozuzan gauza asko be desagertu egin dira.  
Urbiltasuna, begikotasuna,  
zuzeneko artu-emona... Orain egiozu so  
antziñako sukursal orren argazkiari.  
Eta konparatu BBK'ren egungo edozein  
bulego ta sukursalekin.  
Ez dira ain ezbarðiñak.  
Azkenean, garrantzitsuenak  
bere orretan diraelako.  
Gauza batzuk oiñarrikoak dira eta on  
ondo dakigu BBK'kook.  
Garaietan zear aldatu egin gara. Jakiña.  
Bahia leengo berberak gara.  
Zuri laguntzeko. Eta zure alegiñaz  
eta geurez onurak itzultzeko.



**BBK**  
**Bilbao Bizkaia Kutxa**  
EZ DAGO GEIAGO ESKINTZEN DAUANIK